

Haur eta Gazte Literatura

Eskola sorgindua.
Iñaki Zubeldia.

Irudiak: Estibalitz Jalón.
Ibaizabal, 2013



Abenturak eskolan

IÑAKI ZUBELDIK eskaintzen digun istorioa bi unetan zatitzen da, lehena eta garrantzitsuena, arratsalde batean, eta bigarrena, lehen egun horren ondorioz eginiko jai bat dugu. Alde horretatik, Estibalitz eskolan jazotakotik abiatzen da liburua; neskatalak gaua oso gaizki pasa ondoren, lo gutxi egin ondoren, eskolara doa eta bertan logaleak erreta dago; hain nekatua eta logale da neskatoa ezen komunera joan eta bertan lo goxo geratzen baita: “Loguraren zama hain astuna zenez, eserita jarri zenerako loak hartu zuen gajoa (...) neskatala lo sakon, astunean murgildu zuen. Arnasa baretu zitzaion eta munduko oherik gozoenean bezalaxe egin zuen lo”. Estibalitz eskolan entzerraturik geratu da eta bertan zuzendaria bere bulegoan eta leihotik sartu den Panfilo loroa besterik ez dago; edo hori uste dute beraiek, gutxienez. Ustekabeak, egoera bereziak, aldrebeskeriaren batek eraginda suhiltzaileak, eta baita ertzainak ere, eskolara sartu eta amaiera zoriontsua emango diote Estibalitzaren desagertpenari. Ondoren neskatalaren etxean ospakizun txiki bat egingo dute eskolako lagunek, neskaz kezkaturik han inguruan zeuden lagunek, eta guztien artean jai bat antolatuko dute amaiera zoriontsua ospatzeko; San Juan sua egiteko gauean alkatea ere bertan zelarrik, suhiltzaileei, Estibalitz eta, nola ez, Panfilo loroari eginiko omenaldi kuttuna: “Ume txikiek haiekin dantza egin nahi izan zuten.

Eskolako sorginkeriak gogoratuz hasitako gau ospakizuna ametssetako festa bihurtu zen. Astrabuduako familiek eta bereziki txikienek ez dute berehala ahaztuko San Juan sua egin zuteneko gau magiko eta misteriotsu hura.”

Eskola sorgindua ipuina nahiko erraz irakurtzen da, ekintzak eta elkarrizketak dira kontakizunaren elementu nagusiak eta, alde horretatik, arintasuna ematen diote testuari eta Zubeldiak aspaldi erakutsi zuen hizkuntzaren ezagutza aparta eta erregistro egokiaren erabilera. Hala ere, amaiera aldean kontakizunak ia ez du elkarrizketarik, deskribapenak hartzen du pisurik nagusia eta behin eta berriro errepikatzen denaren sentsazioa du irakurleak; eta horrek astundu egiten du apur batean, bederen, irakurketa.

Gertakari sinple eta, era berean, umoretsu baten inguruan eraikitako kontakizuna dugu, beraz, sorginurik dirudien eskola honen istorioa. Arin eta gustura irakurtzen dena. Eta Estibalitz Jalónen koloretako irudiek primeran osatzen dute ipuina. Ilustratzaile gaztearen lana aparta baita, aurreko lanetan erakutsitako estilo propio hori oraingo honetan ere azaltzen digularik ipuinaren tonuarekin asmatuz eta istorioa edertuz. ■

Xabier Etxaniz Erle



Bigarren finalaurrekoa



Urdulizen, azaroaren 30ean, 17:30ean, Iparralde kiroldegian



Beñat
Ugarteitxe
Ostolaza



Etxahun
Lekue
Etxebarria



Gorka
Ostolaza
Iharan "Polxis"



Julen
Erezuma
Arzanegi



Onintza
Enbeita
Maguregi



Xabat
Gallebeitia
Abaroa

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa

